



LAN TALDEA ETA BANAKETA ZERRENDA GRUPO DE TRABAJO Y LISTA DE DISTRIBUCIÓN

22

DEFINIZIOA Zer da?

Banaketa-zerrenda mezuak aldi berean bidaltzeko programa oinarritzat duen posta elektronikoko erabiltzaile-elkartea da. Horren arabera, talde bateko harpidedun guztiak jasotzen dute edozein parte-hartzailek mezu elektronikoak modu masiboa hedatzeko programa hau instalatuta dagoen zerbitzarira igorritako mezu bakoitza. (Iturria: <http://exlibris.usal.es/merlo/escritos/pdf/mei.pdf>)

Hasiera batean banaketa-zerrendak posta elektronikoa kudeatzeko programei loturik sortu ziren arren, informazioa hainbat kideren artean partekatzeko (artxiboak partekatzeko esparrua) eta komunikazio-tresna gehiago edukitzeko premiak zerrenda horiek buletinetarantz, berri taldeetarantz, eta, azkenik, lan-taldeetarantz egin dute.

Lan-talde bat banaketa-zerrenda bat eta komunikazioko nahiz informazio-kudeaketako beste hainbat tresna kudeatzeko aukera ematen duen interneteko gune bat da. Bertan, taldeko kideek elkar lanean jarduten dute gai comun baten inguruan.

DEFINICIÓN ¿Qué es?

Una lista de distribución es una agrupación de usuarios de correo electrónico que basa su trabajo en un programa de envío simultáneo de mensajes, de modo que todos los suscriptores de un grupo reciben cada mensaje remitido por cualquiera de los participantes al servidor en el que se encuentra instalado este programa de difusión masiva de correos electrónicos. (Fuente: <http://exlibris.usal.es/merlo/escritos/pdf/mei.pdf>)

Aunque inicialmente las listas de distribución surgieron vinculadas a los programas de gestión de correo

electrónico, la necesidad de ir compartiendo una misma información entre distintos colaboradores (espacio para compartir archivos) y disponer de más herramientas de comunicación ha provocado su evolución hacia los boletines, los grupos de noticias y, finalmente, hacia los grupos de trabajo.

Un grupo de trabajo es un espacio de Internet que permite gestionar una lista de distribución y otras herramientas de comunicación y gestión de información, para establecer una colaboración real entre los miembros del grupo entorno a una temática común.

**BALIABIDEAREN
ERABILERA
Nola erabiltzen da?**

Lehenik eta behin, lan-taldearen edo banaketa-zerrendaren funtzio didaktikoari buruz gogoeta egin eta, horren arabera, erabakiak hartu behar dira. Ondoren, bi aukera hauetan daude:

- Lehenago sortutako eta gelan jorratutako gaia lantzen duen lan-talde bat edo banaketa-zerrenda bat erabiltzea. Banaketa-zerrendak sortzeko zerbitzuek (ikus loturak gomendatutako guneen atalean) aukeratutako gaiari dagozkion baliabideak aukeratzeko bilatzaileak dituzte.

Gure ikasleek aukeratutako lan-taldean edo banaketa-zerrendan parte har dezaketen edo hori gomendagarria ote den balioetsi behar da. Horretarako, irakasleak aldez aurretik epe jakin batean probatzea gomendatzen da. Fase horren ondoren, tresna ikasleei aurkeztu, eta bertan erregistratzeko prozesua eta tresnaren erabilera bideratzen dira.

Ikasgela taldearen premia zehatzei erantzuten dien lan-talde bat edo banaketa-zerrenda bat sortzea. Hainbat webgunek banaketa-zerrendak eta lan-taldeak sortzeko eta ostatatzeko doako zerbitzua ematen du: posta elektronikoko kontu bat eduki behar da tresna horiek sortzeko izapideetarako. Banaketa-zerrenden kasuan ohikoa da zerrendarako harpidetza urtetik urtera berritzea.

**UTILIZACIÓN
RECURSO
¿Cómo se usa?**

En primer lugar hay que reflexionar y tomar decisiones sobre la función didáctica del grupo de trabajo o de la lista de distribución. Seguidamente hay que optar por:

- Utilizar un grupo de trabajo o una lista de distribución ya creado anteriormente y que aborde la temática abordada en clase. Los servicios de creación de listas de distribución (ver enlaces en sitios

recomendados) disponen de buscadores para seleccionar recursos de la temática seleccionada.

Hay que valorar si es posible o recomendable que nuestros alumnos participen en el grupo de trabajo o de la lista de distribución seleccionada para lo cual se recomienda un tiempo de prueba de utilización por parte del docente. Superada esta fase se presenta a los alumnos, se orienta su registro y su utilización.

Crear un grupo de trabajo o una lista de distribución que responda a unas necesidades específicas del grupo clase. Existen diferentes sitios web que ofrecen servicio gratuito de creación y alojamiento de listas de distribución y grupos de trabajo: se debe disponer de una cuenta de correo electrónico para tramitar la creación.

En el caso de las listas de distribución, es habitual la renovación anual de la suscripción a la lista.

IKASGELARAKO GOMENDIOAK

Banaketa-zerrenda bat erabiltzea posta elektronikoaren erabileraarekin lotuta dago [[Info gehiago 13. fitxan](#)].

Gomendagarriena ikasgela taldearen banaketa-zerrenda bat edo lan-talde bat sortzea da. Hain zuzen ere, irakasleak ikasle guztientzako jakinarazpenak bidal ditzake, denen artean lan zehatzak antolatu eta elkarri eman zalantzen eta kezken berri, ikasgelako bertako komunikazioa osatzen duen baliabide digital baten bitartez.

Lan-taldea ikasgelan erabiltzeari dagokionez, funtsezkoa da honako bi komunitate birtual hauek nola jarduten duten elkarrekintzan: eskola-komunitateak eta foroko komunitateak.

Talde berria sortu eta eskola-jarduera bat egiteko erabiltzen badugu, bi komunitateak komunitate bera dira.

Taldean bi modutan sar daitezke kide berriak: parte-hartzaleek beren familia- eta/edo gizarte-ingurunean taldea sustatzearen ondorioz edota taldearen edukiek edo dinamikak beste internauta batzuen interesa piztearen ondorioz. Kasu horretan, taldeko komunitatea eskolako komunitatea baino handiagoa izaten da.

**RECOMENDACIONES
PARA EL AULA**

Nahikoa denbora martxan dabilen lan-talde batek (eskuarki ikasteko gairen bati buruzkoa) ematen dizkigun aukerak aprobetxatzea erabakiz gero, kontuan hartu behar da lan-taldeko komunitateak dagoeneko baduela izaera propioa eskola-komunitatea bertan sartu baino lehen. Irakasle arduraduna funtsezkoa da eskolako komunitatea egokiro sartuko dela ziurtatzeko, betiere sinergiak sortzeko eta izan litezkeen arazoei edo ezustean sor litezkeen egoerei erantzuteko. Batzuetan, proiektu telematikoetan parte hartzeko, irakaslea eta haren ikasleak lehendik sortuta dauden banaketa-zerrendan edo lan-taldeetan sartzen dira.

La utilización de una lista de distribución está relacionada con el uso del correo electrónico [[Más info en ficha 13](#)].

Lo más recomendable es crear una lista de distribución o grupo de trabajo para la comunicación del grupo clase. Así, el docente puede enviar comunicaciones para todos los alumnos, organizar tareas específicas entre todos y compartir dudas e inquietudes a través de un medio digital que complemente la comunicación presencial en el aula.

Un aspecto clave en el uso del grupo de trabajo en el aula se refiere al modo en que interaccionan dos comunidades virtuales: la comunidad escolar y la comunidad del grupo:

Si creamos un grupo nuevo y lo implementamos en el desarrollo de una actividad escolar ambas comunidades son la misma.

La incorporación de nuevos miembros en el grupo puede producirse bien por promoción de los participantes en su entorno familiar y/o social o bien por el interés de otros internautas ante los contenidos o dinámica del grupo. En este caso la comunidad del grupo es mayor que la comunidad escolar.

Si se decide utilizar las posibilidades que nos ofrece un grupo de trabajo con un cierto historial de funcionamiento (normalmente centrado en una temática de estudio particular) se debe tener en cuenta que la comunidad del grupo de trabajo ya tiene una entidad propia antes de la incorporación de la comunidad escolar. El papel del docente responsable es fundamental para asegurar una incorporación adecuada de la comunidad escolar, creando sinergias y atendiendo a los posibles problemas o

situaciones inesperadas que puedan aparecer. En ocasiones para participar en Proyectos telemáticos el docente y sus alumnos se integran en lista de distribución o grupos de trabajo ya creados.

**GOMENDATUTAKO
GUNEAK
Non aurki dezaket?**

Banaketa-zerrenden zerbitzuak:

EListas. Banaketa-zerrendak eta taldeak gaztelaniaz

<http://elistas.egrupos.net/>

Bertsioen, sortutako materialen eta abarren tutorialetarako loturak.

RedIRIS . Espainiako Komunitate Akademikoko banaketa-zerrenden zerbitzua

<http://listserv.rediris.es/cgi-bin/wa?INDEX>

Zerrendak irekita agertzen dira. Gainerako zerrendetan sartzeko, LISTSERV gakoa lortu behar da.

Lan-taldeen zerbitzuak:

Google taldeak

<http://groups.google.com/>

Lineako edo posta elektroniko bidezko eztabaidako taldeak eta web-orri eta ingurune pertsonalizatuak sortzen ditu.

Google-ren talde bat erabiltzeko tutoriala

I. zatia: <http://www.youtube.com/watch?v=84mXLuVEuCo>

II. zatia: <http://www.youtube.com/watch?v=LE2P0pdI7c0>

Luis David Tobón López Komunikazio Pedagogikoko irakasleak landua.

Yahoo taldeak

<http://es.groups.yahoo.com/>

Partekatutako mezuen artxiboak, argazkiak eta argazki-albumak, taldearen agendak, ikerketak eta partekatutako markatzaileak biltzen dituzten taldeak sortzen ditu.

**SITIOS
RECOMENDADOS**
**¿Dónde lo
encuentro?**

Yahoo-ren talde bat erabiltzeko tutoriala

<http://www.slideshare.net/vanessita2009/tutorial-yahoo-1504053>

Vanessa Arequipa Benavides-ek landua.

Servicios de listas de distribución:

EListas. Listas de distribución y grupos en español

<http://elistas.egrupos.net/>

Enlaces a tutoriales de las distintas versiones, materiales creados...

RedIRIS . Servicio de listas de distribución de la Comunidad Académica Española

<http://listserv.rediris.es/cgi-bin/wa?INDEX>

Se muestran las listas abiertas. Para acceder al resto de listas hay que obtener la clave LISTSERV.

Servicios de grupos de trabajo:

Google Grupos

<http://groups.google.com/>

Crea grupos con debate en línea o mediante correo electrónico, páginas y entornos personalizados.

Tutorial de uso de un grupo de Google

Parte I: <http://www.youtube.com/watch?v=84mXLuVEuCo>

Parte II: <http://www.youtube.com/watch?v=LE2P0pdI7c0>

Elaborado por Luis David Tobón López, profesor de Comunicación Pedagógica.

Grupos Yahoo

<http://es.groups.yahoo.com/>

Crea grupos con Archivos de mensajes compartidos, fotos y álbumes de fotos, agendas del grupo, sondeos y marcadores compartidos

Tutorial de uso de un grupo de Yahoo

<http://www.slideshare.net/vanessita2009/tutorial-yahoo-1504053>

Elaborado por Vanessa Arequipa Benavides.